



Erronkaz beteriko garaia

Joan den udaz geroztik, ekonomiaren susperraldiari buruz entzuten ari gara; herritarren gehiena txertatzera-koan, ekonomiak hazkunde historikoa jasango du. Enegarren krisi hau ustekabean agertu zela helarazi digute, eta txertoei eta mana europarrari esker magikoki gaintuko dela.

Kapitalismoan krisiak zerbait endemikoa direla aipatzea ahaztu egiten zaie gobernu eta analistei, kapitalismoaren funtzionamenduaren bihotzean dagoela: azken 150 urteetan munduan hamalau atzeraldi handi gertatu dira. Kapitalismoaren egiturazko arazoak hor zeuden jada, eta Atzeraldi Handiak eta 2020ko krisiak arazo horiek larriagotu besterik ez dituzte egin. Epe luzeko azterketa egiten badugu, ekonomia inperialista nagusietako irabazi-tasak behera egin dute, Michael Roberts eta Esteban Maito ekonomialariek aztertu duten bezala. Hainbat gobernuak irtenbidea eman nahi dioten arren, beharazko bide hori sendotzen ari da, eta pandemiak joera bizkortu besterik ez du egin.

Hala ere, atzeraldi horiek gorabehera, aberastasuna sortzen jarraitu da; beste kontu bat da zeren eta nortzuen kontura. Azken 40 urteak hartuz gero, Euskal Herrian aberastasuna (Barne Produktu Gordina hartuta) bikoiztu egin da, nahiz eta 2008ko Atzeraldi Handia pairatu dugun. Txanponaren beste aldea soldatapeko langileena da, BPGean duten parte har-

Ekonomia mugitzeko eta aberastasuna sortzeko funtsezkoak diren langileak izango dira gakoa. Noski, langilearen kontzeptu fordista atzean uzten badugu

tzea 2006tik gaur egun arte behera egin baitu, eta azpimarratzekoa da estatistika horietan mileuristak zein urtean 90.000 euro kobratzen dutenak sartzen direla. Kapitalak bereganatu du aberastasuna, soldatapekoen lepora. Egoera horretan geunden pandemia lehertu aurretik. Epe laburrean, litekeena da koadro teknikoak izatea beren lan-baldintzak eta soldatak murriztuta ikusiko dituzten hurrengoak: sistemarentzat ez da oso jasagarria 800 euroko soldatak murriztea, baina oraindik badago tartea maila altuagoko soldatak murrizteko.

Langileentzat, aurrean daukagun argazkia ez da batere ona. Hala ere, klaseen arteko etengabeko borroka honetan, dena ez da kolpeak jasotzea. Azken aldian, ga-



**ENDIKA ALABORT
AMUNDARAIN**
EKONOMIALARIA

tazkan dauden enpresetako langileak lan handia egiten ari dira indarrak batzeko, Tubacex, Petronor, IPT eta antzekoak kasu. Pandemiarekin elkarrekiko laguntzaren kontzeptu libertarioa ere berpiztu da, elkartasun sareak eta etxebizitza sindikatuen ugaritzea horren isla dira. Klaseen arteko borroka bizitzaren alderdi guztiak hartzen dituelako, ez bakarrik lan mundua.

Hamarkada garrantzitsua dugu aurretik. Krisi multisistemikoak ekarritako arazoak erritmo esponentzian handituko dira. Ezin dugu itxaropena pandemia osteko hazkunde ekonomikoaren esku utzi, agerikoa baita kapitalak bereganatuko duela hazkunde hori, guztion kontura: 2008ko Atzeraldi Handia adibide argia da. Irtenbidea ez da etorriko elite baten eskutik, nahiz eta “jakintza gorenena” izan. Ekonomia mugitzeko eta aberastasuna sortzeko funtsezkoak diren langileak izango dira gakoa. Noski, langilearen kontzeptu fordista atzean uzten badugu, beti anitzagoa izan den langilearen definizio zabala azpimarratuz. Batzen gaituzten puntuak bilatuz eta aniztasun horretatik borrokatuz.

Aurreko hamarkadako akatsetatik ikasiz, ekonomiaren nondik norakoak ulertuz eta daukagun erronka handiak identifikatuz, lan gogorraren bitartez, denentzako mundu hobea lor daiteke. Hori da gure erronka, hori da gure itxaropena. ●